

Marmitako Txapelketa jokatuko da gaur Hernanin

*Euskal Herriko 140 taldek parte hartuko dute,
2000 lagunentzako marmitakoa prestatzeko*



ARTXIBOKOA

Marmitako txapelketaren aurreko aldi bat.

Axun Larburu / **Hernani**

GAUR Euskal Herriko 22. Marmitako Txapelketa egingo da Hernanin, Berriak dendari eta ostalari taldeak eta Kantuz abesbatzak antolatuta. «Dagoeneko lau hilabete daramagu lanean eta 120 herritarrek lagunduko dute», azaldu digu Berriak taldeko Mari Cruz Muguruzak.

Txapelketan 140 elkarte arituko dira: 21 Arabakoak, 27 Bizkaikoak, 75 Gipuzkoakoak, 17 Lapurdikoak eta 5 Nafarroakoak. «Talde horiek guztiak biltzeko 1.600 bat elkarteri bidali dizkiegu gutunak».

Elkarte bakoitzeko bi sukaldarik 12 lagunentzako marmitakoa prestatuko dute, 10:30etan hasi eta 14:00ak bitartean.

«Herriko sukaldariak izango dira epaimahaiko, Pedro Subijana, J.M. Arzak, Martin Berasategi eta beste sukaldari ospetsu batzuekin batera», argitu du Berriakeko kideak. Arratsalde arte ez da irabazlearen izenik jakingo. Halere, bitarte horretan marmitakoa plater nagusi izango duen herri bazkaria egingo da.

Egunean zehar txistulari, txalapartari, trikitilari, dantzari eta bertsolariek kaleak eta sukaldariak animatuko dituzte. Artisau azoka eta Donostialde Bailarako 2. ezti lehiaketa ere egingo da. Pilotalekuan, bestalde, Gipuzkoako Pilota txapelketako bi pilota partidu jokatuko dira.

Bazkalondoan, sariak banatu aurretik, bazkalkide guztiek, Kantuz abesbatza-ren laguntzarekin, kanta herrikoiak abesteko parada izango dute. «Euskal Herrian bazkari onaren ondoren kantari aritzea gustatzen zaigu, eta abesbatzaz lagunduta bada gusturago...».

Bazkaltzera 2.000 lagun etortzea espero dute eta herrian 4.000 inguru bilduko direla aipatu zigun Mari Cruz Muguruzak. «Peña antzeko bat dago eta urtero autobusak ere antolatzen dituzte, egokitzen den herrira joateko. Kantuz abesbatza-ren nahiz dendari eta ostalarien nahia jende mugimendua eta herrian giro ona sortzea da».